

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Batzar Nagusiak / Juntas Generales

3/2016 FORU ARAUA, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari Buruzkoa.

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2016ko maiatzaren 18ko Osoko Bilkuran onartu dutela 3/2016 FORU ARAUA, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindu ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

Bilbon, 2016ko maiatzaren 19an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO HIGIEZINEN FORU KATASTROARI BURUZKO MAIATZAREN 18KO 3/2016 FORU-ARAUATARIKOA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauak, indarrean egon den hogeita bostetik gora urteetan, tokiko zergapetzearen muina den zerga hori arautzeaz gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Katastroren inguruko guztia ere arautu du. Baina sistematika argirik gabe eta gai bien arteko lotura-puntu gisa OHZren zerga-oinarria zehazteko ondasun higiezinaren katastro-balioa aplikatzea erabiltza, foru arau horrek Higiezinaren Foru Katastroa arautzen zuen eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko prozedura ezarzen zuen.

Bada, arau hori denbora luzean egon denez indarrean, aldaketa ugari eta garrantzitsuak egin zaizkio haren edukari, eta Katastroaren arloan nabarmentzekoa da 2003ko martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauak, Tokiko zerga-ordainketaren araubidea eraldatzekoak, eragin zuena; gainera, eremu propioa eman behar zaio gai horietako bakoitzari, nahitaez lotuta dauden arren printzipio ezberdinei erantzuten diete-eta. Horrenbestez, gomendagarria da gaiok arautzeko tresna arauemailerako autonomoak onestea. Horrela, 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren edukia bitan zatituko da: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko foru arau honetan; bestetik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko foru arau berri batean.

Eragile askok erabiltzen dute katastroko informazioa, azken urteetan lurraldeari buruzko informazioa biltzeko plataforma handi bihurtu baita, zeina administrazio publikoen, fede-emaleen, enpresen eta herritarren eskura dagoen, baina, hala ere, horrek ez du inondik inora hutsaltzen Foru Katastroak duen tributu-izaera. Izan ere, indartu egiten du izaera hori, informazio hori erreferentzia da-eta ez soilik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarentzat, baina baita toki-eremuk beste zerga batzuentzat eta Bizkaiko Lurralde Historikoko beste tributu batzuentzat ere.

Higiezinaren Foru Katastroaren arauketak (Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoa da, eta foru arau honetan jasotzen da) oro har jasotzen du, modu kontinuistan, aurreko araudiaren funtsezko zatia, asmo bikoitzarekin: batetik, hura sistematizatu eta aberasteko, urteotan pilatutako esperientzia ikusita, eta, bestetik, arauketa hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauak jasotzen duen oinarritzko esparru komunari egokitzeko.

Foru arau honek, beste ororen gainetik, Foru Katastroaren definizio objektiboa jasotzen du, eta esaten du zer den: erregistro administratibo bat, tributuen orokortasun- eta justizia-printzipioen zein baliabide publikoak ekitatez esleitzeko printzipioaren zerbitzura dago-

NORMA FORAL 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

Hago saber que las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado en Sesión Plenaria de fecha 18 de mayo de 2016, y yo promulgo y ordeno la publicación de la NORMA FORAL 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, a los efectos que todos los ciudadanos, particulares y autoridades, a quienes sea de aplicación, la guarden y la hagan guardar.

En Bilbao, a 19 de mayo de 2016.

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

NORMA FORAL 3/2016, DE 18 DE MAYO, DEL CATASTRO INMOBILIARIO FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PREÁMBULO

La Norma Foral 9/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, ha regulado, durante sus más de veinticinco años de vigencia, no solo esta figura tributaria piedra angular de la imposición local, sino también la materia relativa al catastro inmobiliario del Territorio Histórico de Bizkaia. Sin una sistemática clara y tomando como punto de engarce entre ambas materias la determinación de la base imponible del IBI mediante la aplicación del valor catastral de los bienes inmuebles, dicha Norma Foral regulaba el Catastro Inmobiliario Foral y establecía el procedimiento de fijación, revisión, modificación y actualización de los valores catastrales.

Su amplia vigencia en el tiempo, que ha propiciado la incorporación de múltiples y relevantes modificaciones en su contenido, destacando en materia catastral la operada por la Norma Foral 7/2003, de 26 de marzo, de reforma del régimen de tributación local, y la necesidad de conceder un ámbito propio a cada una de estas materias, que aunque inevitablemente conectadas responden a principios diferentes, aconseja la aprobación de instrumentos normativos autónomos para su regulación. Así, el contenido de la Norma Foral 9/1989, de 30 de junio, quedará desdoblado, por una parte, en la presente Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y, por otra, en una nueva Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

La utilización múltiple de la información catastral, que se ha convertido en estas últimas décadas en una gran plataforma de información territorial disponible para todas las Administraciones públicas, fedatarios, empresas y ciudadanía en general, no desvirtúa, sino todo lo contrario, la naturaleza tributaria del Catastro Foral, al servir aquella como elemento de referencia no sólo para el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, sino también para otros impuestos de ámbito local, así como para diversas figuras tributarias del Territorio Histórico de Bizkaia.

La regulación del Catastro Inmobiliario Foral, competencia de la Diputación Foral de Bizkaia, contenida en la presente Norma Foral, recoge en términos generales, de manera continuista, la parte nuclear de la normativa anterior, procurando, por una parte, sistematizarla y enriquecerla a la luz de la experiencia adquirida y, por otra, acomodarla al marco básico y común contenido en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Norma Foral contiene, ante todo, una definición objetiva del Catastro Foral como lo que realmente es, un registro administrativo al servicio de los principios de generalidad y justicia tributaria y de asignación equitativa de los recursos públicos, a cuyo fin la

ena, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia lankidetzan arituko da beste administrazio publikoekin, auzitegi eta epaitegiekin zein Jabetza Erregistroarekin, bakoitzaren eginkizunak eta eskumenak betetzearren.

Foru arau honek beste zenbait berritasun garrantzitsu ere bada-kartza, eta haien artetik azpimarratu daiteke, batetik, definitu egi-ten direla ondasun higiezinaren kontzeptua eta izaera, oro har, eta, bereziki, katastroko elementua (ondasun higiezin bat osatzen duten zatietako bakoitza da, baldin eta beren ezaugarri fisiko, funtzional, administratibo eta juridikoengatik bereizi egin badaiteke), eta, bes-tetik, katastroko titularraren kontzeptua zehazten da. Gainera, onda-sunen hirugarren kategoria bat definitzen da, hiri- eta landa-onda-sun higiezinekin batera: ezaugarri bereziko ondasun higiezinak. Ondasunok erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, eta, horrenbestez, ezin dakieke balioztatze kolektiboa eta/edo karak-terizazio normalizatua egin.

Foru arau honekin lortu nahi den beste helburuetako bat, aurreko arauketarekin alderatuta, Foru Katastroaren kudeaketaren inguruko gaiak berrantolatuta eta garatzea da, eta, hala, ezartzen da nahita-ezkoa dela ondasun higiezinak Higiezinaren Foru Katastroan sartzea eta handik ateratzea, bai eta higiezinaren ezaugarrien aldaketak erans-tea ere. Horretarako, katastroko aldaketak deklaratu, komunikatu eta erregularizatzeko prozedurak arautzen dira, bai eta desados-tasunak ongitu eta zuzentzeko prozedura zein Katastroa egune-tazekoa ere. Katastro-balioei dagokienez, haiek zehazteko irizpi-deak eta prozedura finkatzen dira; baliook zehazteko, bada, dagokion balio-txostena onetsi eta aplikatuko da.

Foru arau hau izapidetzearekin batera, Bizkaiko Foru Aldun-diak martxan dauka hiri- eta landa-ondasun higiezinaren katastro-balioen txosten berriak onesteko prozedura, eta, bigarren fase batean, ezaugarri bereziko ondasun higiezinarenak, horretarako duen esku-men eskusiboa erabiliz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udale-kin lankidetzan. Logikoa denez, indarrean egon diren balio-txos-tenak onartu zirenetik orain arte denbora asko igaro denez, balio berriak nabarmen handiagoak izango dira aurrekoak baino, eta horrek ondorioak izango ditu, jakina, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2017ko urtarilaren 1etik aurrerako sortzapenetan zerga-oinarria kuantifikatzeko orduan, katastro-balioak eratzen baitu oinarri hori.

Foru arau honen beste berritasun bat —katastroa berrikusteko prozedurari estu-estu lotua— jakinarazpen-sistemari dagokio; izan ere, araudi berrian zehazten da, segurtasun juridikoaren prin-tzipioa bermatzearren, jakinarazpena egin daitekeela edo bitarteko elektronikoak erabiliz, edo interesduna pertsonatuz, edo bitarteko ez-elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpen pertsonal eta zuzenaren bidez. Kontuan hartuta gure lurralde historikoan balioz-tatze berria egin behar zaien hiri- eta landa-ondasun higiezinak bi milioitik gora direla, prozedura oso konplexua dela eta Bizkaiko Foru Administrazioak haien jakinarazpenak egiteko erabili izan duen sis-temak —jakinarazpen pertsonalak— kostu ekonomiko handia izango lukeela, ez da gomendagarria, baliabide publikoak erabil-tzerakoan bete beharreko eraginkortasun printzipioaren arabera, sistema hori orokortu eta modu eskusiboan erabili nahi izatea. Horren ondorioz, erregelamendu bidez ezarriko dira jakinarazpena per-sonatuta zein bitarteko elektronikoak erabiliz egiteko betekizunak eta baldintzak.

Foru arau honek 52. artikulua ditu, honela banatuta: atariko titulu bat eta beste zazpi titulu, gehi xedapen gehigarri bi, hiru xedapen iragankor, xedapen derogatzaile bat eta azken xedapen bi.

Atariko titulua eta I. titulua Higiezinaren Foru Katastroaren infor-mazio-printzipioen eta haren edukien ingurukoak dira, bai eta onda-sun higiezinak eta katastroko titularrak kategorizatzearen inguru-koak ere.

II. titulua 6 kapitulutan banatzen da, eta Higiezinaren Foru Katas-troa eratzeari eta mantentzeari buruzko guztia arautzen du. Jarraiko titulu biak, III.a eta IV.a, katastro-kartografiari buruzkoak eta Higiezinaren Foru Katastroari laguntzeko betebeharrari zein infor-mazio-trukeari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

Diputación Foral de Bizkaia colaborará con el resto de Adminis-traciones Públicas, los Juzgados y Tribunales y el Registro de la Propiedad para el ejercicio de sus respectivas funciones y com-petencias.

Asimismo, esta Norma Foral introduce algunas novedades des-tacables, entre las que cabe citar la definición del concepto y natu-raleza de los bienes inmuebles, en general, y del elemento cata-stral, en particular, siendo éste cada una de sus partes diferenciadas por características físicas, funcionales, administrativas o jurídicas ,así como la conceptualización del titular catastral. Se define por pri-mera vez una tercera categoría de bienes, junto a la de los bienes de naturaleza urbana y la de los de naturaleza rústica, constituida por los bienes de características especiales, formados por un con-junto complejo de uso especializado y que, por ello, no son sus-ceptibles de valoración colectiva ni caracterización normalizada.

Otra de las finalidades pretendidas por la presente Norma Foral es la reordenación y desarrollo con respecto a la regulación an-te-rior de las cuestiones relativas a la gestión del Catastro Foral, esta-bleciéndose la obligatoriedad de que los bienes inmuebles sean incluidos y excluidos del mismo, así como que sean incorporadas las alteraciones de sus características. Para ellos, se regulan los procedimientos de declaración, comunicación, regularización de alteraciones catastrales, de subsanación de discrepancias y de rec-tificación, así como el de actualización catastral. Respecto a los valores catastrales, se fijan los criterios y el procedimiento para su determinación, mediante la aprobación y aplicación de la corres-pondiente ponencia de valores.

En paralelo a la tramitación de la presente Norma Foral, se está llevando a cabo un procedimiento de aprobación de nuevas ponencias de valores catastrales para los bienes inmuebles de natu-raleza urbana y rústica, y en una segunda fase para los bienes inmu-bles de características especiales, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de su competencia exclusiva y en cola-boración con los ayuntamientos del Territorio Histórico. Lógicamente, dado el tiempo transcurrido desde la aprobación de las ponencias de los valores vigentes hasta la actualidad, los nuevos valores van a resultar sustancialmente más elevados que los valores anterio-res, con el consiguiente efecto en la cuantificación de la base impo-nible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, constituida por dicho valor catastral, a partir del devengo que se produzca el 1 de enero de 2017.

Otra de las novedades de esta Norma Foral, estrechamente ligada al procedimiento de revisión catastral, consiste en el sis-tema de notificación, dado que la nueva normativa, en aras a garan-tizar el principio de seguridad jurídica, establece que ésta pueda realizarse por medios electrónicos, por personación o por noti-ficación personal y directa por medios no electrónicos. Teniendo en cuenta el número de bienes inmuebles urbanos y rústicos objeto de nueva valoración en el Territorio Histórico, que supera los dos millones, la complejidad del procedimiento y el elevado coste eco-nómico de las notificaciones personales, sistema tradicionalmente utilizado por la Administración foral de Bizkaia, resulta desacon-sejable, en aras al cumplimiento del principio de eficiencia en el empleo de los recursos públicos, pretender la generalización y uti-lización en exclusiva de este sistema. Es por ello, que reglamen-tariamente se establecerán los requisitos y condiciones para la noti-ficación por personación, así como para la efectuada mediante medios electrónicos.

La presente Norma Foral consta de 52 artículos repartidos en un Título Preliminar y siete Títulos más, además de dos disposiciones adicionales, tres transitorias, una derogatoria y dos finales.

El Título preliminar y el Título I están dedicados a los prin-cipios informadores del Catastro Inmobiliario Foral y al contenido del mismo, así como a la categorización de los bienes inmuebles y de los titulares catastrales.

El Título II, dividido en 6 capítulos, comprende todo lo relativo a la formación y mantenimiento del Catastro Inmobiliario Foral. A continuación, los Títulos III y IV se encuentran dedicados a la car-tografía catastral y al deber de colaboración con el Catastro Imo-biliario Foral e intercambio de información, respectivamente.

V. titulua, bestalde, Katastroko erreferentzia dokumentu batean jasota uztearen ingurukoa da, eta jasota uzte hori derrigorrezkoa da honako hauetan: eskubide errealean inguruko egitate, egintza edo negozioak jasotzen dituzten tresna publikoetan, manamendu eta ebazpen judizialetan, administrazio-espedita eta ebazpenetan zein bestelako agirietan. VI. titulua, berriz, Katastroko informaziorako sarbidea arautzen du.

VII. titulua, azkenik, arau-hausteen eta zehapenen araubide espezifikoak eratzten du; izan ere, arlo hori, aurretik, Zergei buruzko Foru Arauan ezarritako araubide orokorraren arabera eraentzen zen.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan ezarritakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta generoaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. — *Helburua, izaera eta aplikazio-eremua*

1. Foru arau honen helburua Higiezinaren Foru Katastroa arautzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko ondasun higiezinaren erregistro administratiboa den heinean, eta arautzea, halaber, ondasun horien balioztatzea, indarrean dagoen araudiak ezarritako ondorioetarako.

2. Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago, eta bertan deskribatzen dira Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri- eta landa-ondasun higiezinak zein ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

3. Foru arau hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, eta ez ditu galarazten Jabetza Erregistroaren eskumen eta eginkizunak, ez eta ondasun higiezinak erregistro horretan inskribatzeak sortzen dituen funtsezko ondorio juridikoak ere.

2. artikulua. — *Higiezinaren Foru Katastroaren informazio-printzipioak*

1. Katastroko informazioa tributuen orokortasun- eta justizia-printzipioen zein baliabide publikoak ekitatez esleitzeko printzipioaren zerbitzura egongo da, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia beste administrazio publikoekin, auzitegi eta epaitegiekin zein Jabetza Erregistroarekin lankidetzan arituko da, bakoitzaren eginkizunak eta eskumenak betetzearen.

2. Halaber, lurraldeari buruzko informazioa behar duten politika publikoen eta herritarren eskueran egongo da, foru arau honen VI. tituluaren ezarritako baldintzetan.

3. artikulua. — *Edukia*

1. Hiri- zein landa-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren datuen multzoak osatzen du Higiezinaren Foru Katastroa, ondasunon ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoekin. Bertan, haien azalerak, kokapena, mugak, laborantza motak edo aprobetxamenduak, erabilera edo xedea, eraikinen kalitatea, irudikapen grafikoa, katastro-balioa eta katastroko titulartasuna islatuko dira. Katastroko erreferentziak ere jasoko ditu, katastroko ondasun higiezinaren identifikazio-kode gisa, foru arau honen I. tituluaren ezarritako baldintzetan.

2. Higiezinaren Foru Katastroan eransketa bat sor lezaketen egitate, egintza edo negozioak jasotzen dituzten agiri publikoetan erantsi egin behar da aurreko zenbakian adierazitako ezaugarriak egiaztatzen dituen katastro-ziurtagiri deskribatzaile eta grafikoa, lehen-tasunez bide telematikoa erabiliz lortutakoa; Jabetza Erregistroan ere erantsi behar da, lege ezarritako kasuetan. Era berean, ziurtagiriok administrazio-prozeduretan ere erantsi behar dira, higiezinaren deskripzio fisikoa egiaztatzeko bitarteko gisa.

3. Katastroaren datu-basean jasotako datuak benetakoak direla uste izango da, tributuei buruzko arautegi orokorrean araututako baldintzetan, Jabetza Erregistroan jasotako datuek beste arlo batzuetan sor lezaketen ondorio juridikoen kalterik gabe.

Por su parte, el Título V se destina a la constancia documental de la referencia catastral, que se configura como obligatoria tanto en instrumentos públicos, mandamientos y resoluciones judiciales, expedientes y resoluciones administrativas y documentos, en los que consten hechos, actos o negocios relativos a los derechos reales. Por su parte, el acceso a la información catastral se regula en el Título VI.

Por último, el Título VII configura todo un régimen específico de infracciones y sanciones, cuestión que anteriormente se regía por el régimen general establecido en la Norma Foral General Tributaria.

En cumplimiento de lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 55 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre elección, organización, régimen y funcionamiento de las instituciones forales del Territorio Histórico de Bizkaia, acompañan a la presente Norma Foral el informe de memoria económica, así como el informe de evaluación de impacto de género.

TÍTULO PRELIMINAR

Artículo 1. — *Objeto, naturaleza y ámbito de aplicación*

1. Es objeto de la presente Norma Foral regular el Catastro Inmobiliario Foral como registro administrativo de los bienes inmuebles del Territorio Histórico de Bizkaia, así como regular la valoración de los mismos a los efectos establecidos por la normativa vigente.

2. El Catastro Inmobiliario Foral depende de la Diputación Foral de Bizkaia y en él se describen los bienes inmuebles urbanos, rústicos y de características especiales del Territorio Histórico de Bizkaia.

3. Esta Norma Foral será de aplicación en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, sin perjuicio de las competencias y funciones del Registro de la Propiedad y de los efectos jurídicos sustantivos derivados de la inscripción en dicho registro.

Artículo 2. — *Principios informadores del Catastro Inmobiliario Foral*

1. La información catastral estará al servicio de los principios de generalidad y justicia tributaria y de asignación equitativa de los recursos públicos, a cuyo fin la Diputación Foral de Bizkaia colaborará con las Administraciones Públicas, los Juzgados y Tribunales y el Registro de la Propiedad para el ejercicio de sus respectivas funciones y competencias.

2. Asimismo, estará a disposición de las políticas públicas y de la ciudadanía que requiera información sobre el territorio, en los términos previstos en el Título VI de la presente Norma Foral.

Artículo 3. — *Contenido*

1. El Catastro Inmobiliario Foral está constituido por un conjunto de datos de los bienes inmuebles rústicos, urbanos y de características especiales que comprenderá sus características físicas, económicas y jurídicas, con expresión de superficies, situación, linderos, cultivos o aprovechamientos, el uso o destino, la calidad de las construcciones, la representación gráfica, el valor catastral y la titularidad catastral. También contendrá las referencias catastrales como código identificador de los bienes inmuebles en los términos previstos en el Título I de la presente Norma Foral.

2. La certificación catastral descriptiva y gráfica acreditativa de las características indicadas en el apartado anterior y obtenida, preferentemente, por medios telemáticos, se incorporará en los documentos públicos que contengan hechos, actos o negocios susceptibles de generar una incorporación en el Catastro Inmobiliario Foral, así como en el Registro de la Propiedad en los supuestos previstos por ley. Igualmente se incorporará en los procedimientos administrativos como medio de acreditación de la descripción física de los inmuebles.

3. Los datos contenidos en la base de datos catastral gozarán de la presunción de veracidad en los términos regulados en la normativa tributaria general, sin perjuicio de los efectos jurídicos que puedan desplegar en otros ámbitos los datos contenidos en el Registro de la Propiedad.

4. artikulua. — Eskumenak

1. Higiezinaren Foru Katastroa eratzea eta mantentzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eskusiboa da, bai eta katastroko informazioaren zabalkundea egitea ere. Eginkizunon artean daude, besteak beste, katastroko datuen kontserbazio, berritze eta berrikusketa, errolda prestatzea, datuen ikuskaritza eta katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea. Eginkizunok, bada, Ogasun eta Finantza Sailak beteko ditu, zuzenean edo udalekin edo beste toki-erakunde batzuekin sinatutako lankidetzak hitzarmenen bidez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, balio-txostenak prestatzeko eta onesteko goi-eginkizuna —lurzorua zedarriztatu aurretik egingo dena, beharrezkoa bada— eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko eginkizuna Ogasun eta Finantza Sailak beteko du beti, foru arau honetan arautzen diren prozeduren arabera.

I. TITULUA**ONDASUN HIGIEZINAK ETA KATASTROKO TITULARRAK****I. KAPITULUA****ONDASUN HIGIEZINAK****5. artikulua. — Ondasun higiezinaren kontzeptua eta izaera**

1. Ondasun higiezinak, katastroari dagokionez, izaeraren arabera sailkatzen dira, honela: hiri-ondasun higiezinak, landa-ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

2. Katastroaren ondorioetarako, hau izango da ondasun higiezina: udal-mugarte batean kokatutako partzela edo lur-zati bat, poligono batean mugatuta dagoena pertsona baten jabetzakoa edo pro indiviso askoren jabetzakoa izateagatik. Halakorik badago, eremu horretan kokatutako eraikinak ere definizio horren barruan sartuko dira.

3. Hauek ere ondasun higiezinak izango dira:

a) Eraikinetako elementuak, aprobetxamendu independentean xede izan badaitezke eta jabetza horizontaleko araubide bereziaren pean badaude. Halaber zenbait elementu pribatibok eratzen duten multzoa ere ondasun higiezinak izango dira, elementuok elkarri lotuta badaude eta egintza-batasunean eskuratu badira, eta, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, titular baten erabilera eta luperketa eskusibo eta iraunkorrera atxikita pro indiviso dauden trastelekuak eta aparkalekuak.

b) Elementu erkideak, katastro-balioztatzea egiteko soil-soilik, dagozkien higiezinari esleituko zaizkie, erregelamenduz ezartzen diren erakundeak.

c) Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak, foru arau honen 9. artikuluan definitzen direnak.

d) Azalera-eskubide baten espazio-eremua, bai eta ondasun higiezinaren edo haiek afektatuta dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakidaren espazio-eremua ere, aurreko letretako kasuak gertatzen direnean izan ezik.

4. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, hauek hartuko dira eraikuntzatzat:

a) Eraikinak, kontuan izan gabe zer elementu erabili diren haiek eraikitzeak, eraikinok zer kokaleku duten, eraikinok zer lurzoru motatan altxatu diren eta zer erabilera ematen zaien, nahiz eta eraikinak dauden lurzorua ez izan eraikuntzaren jabearena.

b) Urbanizatzeko eta hobekuntza-lanak, esaterako, lur-berdinketak eta estali gabeko espazioak erabiltzeko egiten direnak. Estali gabeko espazioak, berriz, hauek izango dira: merkaturako erabiltzen diren esparruak, aire zabaleko biltegiak, kirola egiteko zelaiak eta instalazioak, moilak, aparkalekuak eta eraikuntzei atxikitako espazioak.

c) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, haien hondoa edo ontzia barne.

Artículo 4. — Competencias

1. Es competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia la formación y mantenimiento del Catastro Inmobiliario Foral así como la difusión de la información catastral. Estas funciones que comprenden, entre otras, la conservación, renovación y revisión de los datos catastrales, la elaboración del Padrón, la inspección y la elaboración y gestión de la cartografía catastral, se ejercerán por el Departamento de Hacienda y Finanzas, directamente o a través de los convenios de colaboración que se celebren con los Ayuntamientos u otras entidades locales, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la superior función de elaboración y aprobación de las ponencias de valores, previa en su caso delimitación del suelo, así como la fijación, revisión, modificación y actualización de los valores catastrales se ejercerá, en todo caso, por el Departamento de Hacienda y Finanzas con sujeción a los procedimientos regulados por esta Norma Foral.

TÍTULO I**BIENES INMUEBLES Y TITULARES CATASTRALES****CAPÍTULO I****BIENES INMUEBLES****Artículo 5. — Concepto y naturaleza de los bienes inmuebles**

1. Los bienes inmuebles se clasifican catastralmente, según su naturaleza, en bienes inmuebles urbanos, rústicos y de características especiales.

2. A efectos catastrales, tiene la consideración de bien inmueble la parcela o porción de suelo enclavada en un término municipal y delimitada poligonalmente por razón de su pertenencia a una persona en propiedad o a varias pro indiviso y, en su caso, las construcciones emplazadas en dicho ámbito.

3. Tendrán también la consideración de bien inmueble:

a) Los diferentes elementos de los edificios que sean susceptibles de aprovechamiento independiente, sometidos al régimen especial de propiedad horizontal, así como el conjunto constituido por diferentes elementos privativos mutuamente vinculados y adquiridos en unidad de acto y, en las condiciones que reglamentariamente se determinen, los trasteros y plazas de estacionamiento en pro indiviso adscritos al uso y disfrute exclusivo y permanente de un o una titular.

b) La atribución de los elementos comunes a los respectivos inmuebles, a los solos efectos de su valoración catastral, se realizará en la forma que se determine reglamentariamente.

c) Los bienes inmuebles de características especiales definidos en el artículo 9 de esta Norma Foral.

d) El ámbito espacial de un derecho de superficie y el de una concesión administrativa sobre los bienes inmuebles o sobre los servicios públicos a los que se hallen afectos, salvo que se den los supuestos previstos en las letras anteriores.

4. A los efectos señalados en el apartado 1 de este artículo, tendrán la consideración de construcciones:

a) Los edificios, sean cualesquiera los elementos de que estén contruidos, los lugares en que se hallen emplazados, la clase de suelo en que hayan sido levantados y el uso a que se destinen, aun cuando el terreno en el que se hallen situados no pertenezca al dueño o dueña de la construcción.

b) Las obras de urbanización y de mejora, como las explanaciones y las que se realicen para el uso de los espacios descubiertos, considerándose como tales los recintos destinados a mercados, los depósitos al aire libre, los campos e instalaciones para la práctica del deporte, los muelles, los estacionamientos y los espacios anejos a las construcciones.

c) Las presas, saltos de agua y embalses, incluidos su lecho o vaso.

d) Industria-, merkataritza-, kirol- eta jolas-instalazioak; nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrain-hazkuntzako instalazioak. Halakotzat hartuko dira, hain zuzen, instalazioak kokatuta dauden lurzuri modu finkoan lotuta dauden elementuak eta, bereziki, dikeak, tankeak, zamatzeak, tokiak, moilak, pantalanak eta berotegiak, beti ere horien instalazioak egin beharreko lanek lurzorua era iraunkorrean aldatzen badute; makineria eta tresneria aparte utziko dira, baldin eta inolako zalantzarik gabe instalazioaren parte ez badira.

e) Energia ekoizti, biltegiatu eta banatzeko mota guztietako instalazioak, komunikaziorako eta pertsonen garraiorako erabiltzen diren azpiegitura guztiak, ibilgailuak edo aireontziak, bai eta jaria-kinak eta energia eraman eta garraiatzeko azpiegiturak ere.

5. Katastroaren ondorioetarako, inoiz ere ez dira eraikuntzat hartuko estalpe edo aterpe txikiak, baldin eta haiek eraikitze material arin eta iraungaitzak erabili direnez, eraikuntzak bakarrik erabili badaitezke lurra hobeto aprobetxatzeko, soroak babesteko, aberak aldi batez edukitzeko edo loturik dauden jardueran erabiltzen diren tresna eta lanabesak gordetzeko. Halaber, zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzat hartuko landa-lurretan egiten diren obra eta hobekuntzak, baldin eta lurron balioaren osagai banaezinak badira.

6. artikulua. — Katastroko elementua

1. Katastroko elementua katastroko informazioaren eta balioztatzearen erreferentzia-unitatea da, hots, ondasun higiezin bat osatzen duten zatietako bakoitza, baldin eta beren ezaugarri fisiko, funtzional, administratibo eta juridikoengatik bereizi egin badaiten.

2. Ondasun higiezin bakoitza katastroko elementu batek edo gehiagok osatuko dute, bai eta, hala denean, zenbait ondasun higieztzat erkideak diren katastroko elementuen partaidetza-kuotak ere.

3. Zenbait ondasun higieztzat erkideak diren katastroko elementuen karakterizazioa eta balioztatzea egiteko, gainerako katastroko elementuei aplikatutako irizpide berberak erabiliko dira.

4. Katastroko elementu bakoitza katastroko erreferentzia bakar eta iraunkor baten bidez identifikatuko da, zeina erregelamenduz zehaztuko den; nolahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalmena izango du ondasun higiezin bakoitzerako identifikatzaile propio bat ere ezartzeko.

7. artikulua. — Hiri-ondasun higiezinak

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira hiri-ondasun higiezinak:

- a) Hiri-lurzorua, eta honako hau hartuko da hiri-lurzorutzat:
 - Hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua.
 - Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu gisa sailkatutako lurzorua.
 - Hirigintza-plangintzan lurzoru urbanizagarri sektorizatu gabe gisa sailkatutako lurzorua, sektorizatzeko plana onartzen den unetik aurrera.
 - Hauek dituzten lurrak: bide zolatuak edo espaloi-zintarriak, eta, gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argiteria publikoa ere badituztenak.
 - Hiri-eraikuntzek okupatutako lurzorua.

Tratamendu bera izango dute nekazaritza arloko legedian xedatutakoaren kontra zatikatzen diren lurrek, baldin eta zatikatze horrek nekazaritza-erabilera hutsaltzen badu.

b) Hiri-eraikuntzak: halakotzat joko dira hurrengo artikuluan berariaz landa-izaerakotzat kalifikatzen ez diren eraikuntza guztiak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzorua eta eraikuntzak.

d) Las instalaciones industriales, comerciales, deportivas y de recreo; así como las instalaciones agrícolas, ganaderas, forestales y piscícolas, considerándose como tales a todos los elementos que estén unidos de manera fija al terreno sobre el que se emplazan y en particular los diques, tanques, cargaderos, muelles, pantalanes e invernaderos, siempre que las obras necesarias para su instalación supongan una alteración permanente del suelo, con exclusión de la maquinaria y el utillaje cuando de manera inequívoca no forme parte de la propia instalación.

e) Todo tipo de instalaciones destinadas a la producción, almacenamiento o distribución de energía, cualesquiera infraestructuras destinadas a la comunicación y al transporte de personas, vehículos o aeronaves, así como las infraestructuras de conducción y transporte de fluidos y energía.

5. En ningún caso tendrán la consideración de construcciones a efectos catastrales, los tinglados o cobertizos de pequeña entidad que, por el carácter ligero y poco duradero de los materiales empleados en su construcción, sólo sirvan para usos tales como el mayor aprovechamiento de la tierra, la protección de cultivos, albergue temporal de ganados en despoblado o guarda de aperos e instrumentos propios de la actividad a la que sirven y están afectos. Igualmente, a los efectos de este impuesto no tendrán la consideración de construcciones las obras y mejoras realizadas en terrenos de naturaleza rústica, siempre que constituyan elementos que formen parte indisoluble de estos.

Artículo 6. — Elemento catastral

1. Se denomina elemento catastral a la unidad de referencia de la información y valoración catastral, entendiéndose como tal a cada una de las partes integrantes de un determinado bien inmueble que pueda diferenciarse, en su caso, por sus características físicas, funcionales, administrativas o jurídicas.

2. Cada bien inmueble estará integrado por uno o varios elementos catastrales y, en su caso, por la cuota de participación en aquellos elementos catastrales que sean comunes a varios bienes inmuebles.

3. La caracterización y valoración de los elementos comunes a varios bienes inmuebles seguirá los mismos criterios aplicados al resto de los elementos catastrales.

4. Cada elemento catastral se identificará mediante una referencia catastral única y permanente que se definirá reglamentariamente, sin perjuicio de la facultad de la Diputación Foral de Bizkaia para establecer adicionalmente un identificador propio de cada bien inmueble, en su caso.

Artículo 7. — Bienes inmuebles de naturaleza urbana

1. A efectos catastrales tendrá la consideración de bien inmueble de naturaleza urbana:

- a) El suelo urbano, entendiéndose como tal:
 - El suelo clasificado por el planeamiento urbanístico como urbano.
 - El suelo clasificado por el planeamiento urbanístico como urbanizable sectorizado.
 - El suelo clasificado por el planeamiento urbanístico como urbanizable no sectorizado, desde el momento en que se apruebe el correspondiente plan de sectorización.
 - Los terrenos que dispongan de vías pavimentadas o encintado de aceras y cuenten además con alcantarillado, suministro de agua, suministro de energía eléctrica y alumbrado público.
 - El suelo ocupado por construcciones de naturaleza urbana.

Tendrán la misma consideración los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la legislación agraria siempre que tal fraccionamiento desvirtúe su uso agrario.

b) Las construcciones de naturaleza urbana, entendiéndose como tales todas las construcciones no calificadas expresamente como de naturaleza rústica en el artículo siguiente.

2. Se exceptúan de lo dispuesto en el apartado anterior los suelos y construcciones integrados en un bien inmueble de características especiales.

8. artikulua. — Landa-ondasun higiezinak

1. Katastroaren ondorioetarako, hauek dira landa-ondasun higiezinak:

a) Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera hiri-lurzoru ez diren lurzoruak.

b) Landa-izaerako eraikuntzak. Hauek hartuko dira horrela-kotzat: nekazaritza, abeltzaintza, arrain-hazkuntzako edo basogintzako eraikinak eta instalazioak, landa-lurretan badaude eta jarduera horiek garatzeko ezinbestekoak badira.

Aurrekoa gorabehera, halako jardueraren bat garatzeari lotuta dauden eraikinak hiri-ondasun higiezinak hartuko dira, baldin eta eraikinok bizitegi- edo turismo-erabilera duen elementuren bat badute.

2. Aurreko zenbakian ezarritakotik kanpo geratuko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean sartuta dauden lurzoruak eta eraikuntzak.

9. artikulua. — Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak

1. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute, balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin ezin dakioketena. Bada, multzo hori lurzoruak, eraikinek, instalazioek eta urbanizatzeko eta hobekuntza-lanek osatzen dute, eta, izaera unitarioa dutelako eta funtzionatzeko behin betiko lotuta daudelako, katastroari begira ondasun higiezin bakartzat eratzten dira.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat, besteak beste talde hauetakoak joko dira ezaugarri bereziko ondasun higiezinak:

a) Besteak beste energia, gasa, petrolioaren produktu finduak eta deribatuak ekoizti, biltegiratu eta banatzeko direnak, instalazio termiko, eoliko eta fotovoltaiakoak barne.

b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, haien hondoa edo ontzia barne, ureztapenerako soilik direnak izan ezik.

c) Ordainpeko errepide eta tunelak eta trenbideak.

d) Aireportuak, merkataritzako portuak eta tren-geltokiak.

e) Ondasun higiezinaren beste edozein multzo, baldin eta bere ezaugarri espezifikoak direla-eta balioztatze kolektiboa eta/edo karakterizazio normalizatua egin ezin dakioketen multzo espezializatua osatzen badute.

3. Higiezinok Higiezinaren Foru Katastroan inskribatu eta balioztatzeko, instalazioetan sartuta dagoen makineria ere kontuan hartuko da, bai eta fisikoki instalazioen parte dena edo haiekin lotura funtzionala duena ere.

II. KAPITULUA**KATASTROKO TITULARRA****10. artikulua. — Katastroko titularrak**

1. Pertsona fisikoak, pertsona juridikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. zenbakian aipatutako erakundeak eta testamentu-ahalordea erabiltzearen zain dauden jaraunspenak izan daitezke katastroko titular, baldin eta Higiezinaren Foru Katastroan alta emanda badaude, ondasun higiezin baten edo haren zati baten gainean eskubide hauetako baten titulartasuna izateagatik:

a) Jabetza-eskubide osoa edo ez hain osoa.

b) Gozamen-eskubide erreala.

c) Azalerako eskubide erreala.

d) Ondasun higiezin baten edo ondasun hori afektatuta dagoen zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.

2. Ondasun higiezin baten edo aurreko zenbakian aipatutako eskubideetako edozeinen jabetza pro indiviso badagokio pertsona askori, katastroko titulartasuna bakoitzari dagokion kuotaren arabera esleitu zaien erkide, kide edo partaide bakoitzari eta, hala denean, haiek guztiek osatutako erkidegoari; erkidego hori identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez adieraziko da.

Artículo 8. — Bienes inmuebles de naturaleza rústica

1. A efectos catastrales tendrá la consideración de bien inmueble de naturaleza rústica:

a) El suelo que no tenga la calificación de suelo urbano conforme a lo dispuesto en el artículo anterior.

b) Las construcciones de naturaleza rústica, entendiendo por tales los edificios e instalaciones de carácter agrario, ganadero, piscícola o forestal, que situados en los terrenos de naturaleza rústica, constituyan parte integrante del desarrollo de dichas actividades.

No obstante lo anterior, aquellas construcciones que aun teniendo alguna vinculación con el desarrollo de la actividad, tuvieran algún elemento con uso residencial o de turismo, serán consideradas como bienes inmuebles de naturaleza urbana.

2. Se exceptúan de lo dispuesto en el apartado anterior los suelos y construcciones integrados en un bien inmueble de características especiales.

Artículo 9. — Bienes inmuebles de características especiales

1. Los bienes inmuebles de características especiales constituyen un conjunto complejo de uso especializado, no susceptible de valoración colectiva y/o caracterización normalizada, integrado por suelo, edificios, instalaciones y obras de urbanización y mejora que, por su carácter unitario y por estar ligados de forma definitiva para su funcionamiento, se configuran a efectos catastrales como un único bien inmueble.

2. De conformidad con lo establecido en el apartado anterior, se considerarán bienes inmuebles de características especiales, entre otros, los comprendidos en los siguientes grupos:

